

bidegileak




Jose Antonio Donostia (1886-1956)

Egilea:

**J. A. ARANA MARTIJA**

# Musikarako berezko joera

**S**romantizismoaren eraginez eta, gure herrian, Foruen ezabatzeak dakarren euskal instituzioen aurkako erasoak, kultura munduan bederen, erreakzio nabarmena sortzen du XIX. mendearen azkeneko belaunaldian. Kulturaren orokorki, herriaren jakituriari (folkloreari, hain zuzen,) erabateko aitorten eta bultzada ematen zaizkio, eta arteari, eta musikari bereziki. Herriaren emaitza estimatzen hasiaz gainera, artistak, Europara begira, bide berriak jorratzen ahalegintzen dira, herriko altxorraren oinarritik abiatuz unibertsalagoak izatera. Teknikan eta arte bakoitzari dagokion mintzamoldean, aurreko egoerari uko eginaz, hodeiertz berri bat argitzen hasten da.



Jose Antonio Donostia (1886-1956).

Franz Liszt hil zen urte berean, 1886an hain zuzen, jaio ziren Jesus Guridi, Pedro San Juan, Jose Franco eta gure Aita Donostia. Maurice Ravelek bazituen hamaika urte eta Jose Maria Usandizagak bost. Aita Donostiaren maisua izango zen Bernardo Gabiola, hura baino sei urte zaharragoa, Juan Crisostomo Arriagaren bidea jarraituz, Parisen musika ikasketak egiten aurkitzen dugun belaunaldi berriaren lehene-tarikoa dugu mendearen amaieran. Uhin berri bat datorkigu euskal musikagintzan.

## **Lehen musika ikasketak**

Jose Antonio Zulaika Alberdi (Orio, 1856-1928) eta Felipa Arregi Etxeberria (Donostiako Ategorrieta, 1855-1942) gure musikariaren gurasoak, 1880an Donostiako Idiaketz kaleko 5. zenbakian kokatu ziren. Hamar seme-alaben artean hirugarrena izan zen Jose Gonzalo Zulaika Arregi, *Aita Donostia*, 1886ko urtarrilaren 10ean jaioa. Sei urte zituenean, 1892an, hasi zen eskolan Donostiako mariaristen ikastetxean. Gurasoek, euskaldunak

izan arren, ez zieten seme-alabei euskara irakatsi eta frantsesa izan zen, gaztelaniatik aparte, ikasi zuen bigarren hizkuntza, bere bizitzan benetan baliagarri izan zuena bestalde. Euskara ikasteari gero ekin zion, bere kabuz, Lekarozen herri kulturaren murgildu zenean.

Familiatik ez zekarren Jose Gonzalok musikarako zaletasunik eta neba-arreben artean ere ez zen inor izan joera hori izan zuenik. Baina laster konturatu ziren gurasoak Jose Gonzalok biolinerako agertzen zuen apetarekin



Zulaika - Arregi familia, 1902an. Goiko lerroan, eskuinetik lehena.

eta biolin txiki bat erosi zioten. Zortzi urte zituenean, 1894an, solfeoa ikastera bidali zuten Eleuterio Iburgurenen eskolara eta ia batera Toribio Mugikarenagana biolina jotzen ikastera.

Bi urteko ikasketa xumeak egin ondoren, zerbait bazekien 1896ko ikasturtearen hasieran Lekarozko kaputxinoen ikastetxera, batxilergoa burutzeko, gurasoek eraman zutenean. Hemen, bai, musikan urrats handiak egiteko parada aurkitu zuela, Ismael Etxezarra ikastetxeko irakaslearekin. Musikarekiko zaletasuna piztu zion irakasle honek eta European, gehien bat Parisen, sortzen ari zen musikagintzarako aro berria erakutsi.

Musikarako zeukan gaitasuna ikusirik, 1908ko abuztuaren 24an, komentuko nagusiek Barzelonara bidali zuten hilabeterako lehendik zekiena Adrian Esquerrarekin hobetzeko, eta meza berria eman ondoren, hurbilago zegoen Donostiara, Bernardo Gabiola organistarekin konposizioa ikastera 1910ean.

## Aita Kaputxinoa

Batxilergoa amaitu zuenean, fraide kaputxinoa izatea erabaki zuen, eta 1902ko martxoaren 19an nobizio jantzia hartu zuen Frai Jose Antonio de San Sebastian izenarekin deitua izanik. Aitaren ponte-izena aukeratu zuen eta kaputxinoen ordenan ohi denez, jaioterriarena deiturarako. Hamar urte geroago, euskararekiko grina piztu zitzaionean, *Donostia* hobetsi zuen deiturarako. 1908ko abenduaren 19an apaiztu zen Iruñean eta hurrengo urtarrilaren 10ean, 23 urte bete zituen egun berean, meza berria eman zuen Donostian.

Fraide izateari ez zion inoiz uko egin. Egia esan, fraide berezia izan zen Aita Donostia, musikari ere lotua zegoenez, hainbat salbuespeneko ekintzak burutu behar zituelako, baina beti ordenako nagusien baimenekin. Miguel Querol musikologo katalanak esan zuen hiru motore izan zituela bizitza luzean:



Aita Donostiak ahotsetarako harmonizatu zuena.

Euskal Herria, Erljioa eta Musika. Fraide musikari euskalduna esango genuke. Mathilde Pomes andra idazleak eman zigun definizio egokia: soinean klaustroa daraman fraidetxo ibiltaria.

Izan zituen salaketa mingarriak. Ez zen ohikoa, esate baterako, komentutik kanpo egonaldi luzeak egitea, eta sarritan hoteletan, kontzertuetara joatea, ematea eta are gutxiago orkestrak edo musika bandak zuzentzea, sekular jantzia erabiltzea. Baina Aita Donostiak fraide sena zeukan arimaren oinarri sendoa eta musikak uxatzen zizkion tentaldiak.



Aita Donostia erabiltzen zuen sekular jantziarekin.

## Lehenengo lanak

Lekaroza heldu eta hurrengo urtean, hamaika urte zituenean, burutu zuen ezagutzen dugun lehendabiziko konposizioa: ikastetxean jotzen zen goizeko *Diana* orkestrarako moldatu zuen. Hamasei urterekin organista lanetan ziharduen, edo hobeto esanda, harmoniuma jotzen zuen urte haietan, 1922ra arte ez zegoen organorik ikastetxeko elizan eta.

Orkestraren zuzendari izendatzen dute 1904an. Konposizioan ere ematen ditu urratsak: hari kuartetorako *Minueto* (1905), biolin eta pianorako *Lelengo liliak*, orkestrarako *Meditación* eta *Rapsodia Bascongada*, 1906an. Organorako lanak ere konposatzen ditu eta argitaratzen *La voz de la música* aldizkarian eta *Album para órgano* bilduman, 1907an eta 1908an. Frantziako organo eskolaren eragina nabaritzen da lan hauetan.

Meza berria eman ondoren, musikako gaitasuna ikusita, irteera ugariagoak egiteko baimena ematen diote Lekarozko nagusiek. Eta 1909an Burgosera doa han zeuden fraide frantsesekin hauen hizkuntza hobetzera. Eta bide batez, Silosko beneditarren komentura osterak egiten ditu musika gregoriarra ikasteko. Casiano Rojo fraidearekin egiten ditu ikasketak.

Gregorianoa izango du beti maite duen musika mota eta bere lanetan eragin handiko oinarria. Horregatik, ordurarte ikasitakoa hobetzeko asmoz, Besalura doa 1915ean Mauro Sabrayroles maisuarekin ikasketak eta

ariketak egitera. Hamar urte geroago, 1926an, Parisen zegoelarik, Solesmesko komentu famatura doa Dom Mocquereau beneditarra-ekin harremanak hastera.


Musika zen halako irteerak egiteko aitzakia; baina beste fraideak misioetara bidali zi-

tuztelako, gure Jose Antonio Lekarozko komentuan loturik utzi zuten ia hamar urtean (1909-1918) hango irakasle gisa. Denetarik irakasten zuen, maite ez zituen matematikak izan ezik. Eta gehien bat, jakina, musika.

## **Kantu biltzailea**

**R**esurreccion Maria Azkuek 1901ean argitara eman zuen *Musica popular bascongada* eta Frantzisko Gaskuek Donostian emandako hitzaldiak irakurri ondoren, herri musikarekiko harra sartu zitzaion sakon eta eragingarri. Guridiren *Mirentxu* eta Usandizagaren *Mendi-mendian* operak 1910ean estreinatu zirenean Bilbon, eta 1911n Azkueren *Ortzuri*, herri musikaren balioaz konturatu zen. Bartzelonan 1915ean egon zenean, Felipe Pedrell musikaria eta folklorista ezagutu zuen eta honek baieztatu zion kantu biltzen zerabilen lana garrantzitsua izateaz gainera, herri baten kulturarako ezinbestekoa zela.

Mundu berri baten aurrean aurkitu zen eta herriaren ondare eta altxor honetan murgildu zen gogoz eta adoretzu. Esan dezagun aurrera jo baino lehen, euskal operak Bilbon lortu zuen arrakasta ikusita, bera ere Domingo Agirreren testu batekin hasi zela 1912an *Larraldeko lorea* opera musikatzen, zoritxarrez inoiz amaitu ez zuena.



*Larraldeko lorea* operaren eskuizkribuaren zatia.





Aita Donostia, eskuinean, Arantzadi eta Azkue etnologoekin.

Baztanen hasi zen 1911n euskal kantu bilketan, bere bizi guztian jarraituko zuen lanean, noski. Aurreko urtean, Donostiako *Erviti* argitaletxean bi liburuxka argitaratuak zituen *Oyar-otsak* izenburuarekin, bakoitzean 10 kantu desberdin bilduz, gizonen eta ahots nahastuentzat harmonizatuak. Kantu hauek jadanik ezagunak ziren ordurarte argitaraturiko kantutegietan: Villéhélio, Salaberri, Bordes, Azkue eta abar. Baina bazekien Aita Donostiak (izen hau agertzen da *Ervitiren* edizioan) milaka zeudela jaso gabe eta herri-tik hartu eta adieraztera eman behar zirela. Halako bat hartuta, *Ikazkina mendian*, Segurako Euskal Jaietako lehiaketara aurkeztu zuen 1911n.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Diputazioek kantu bildumarik hoberena saritzeko deialdia

egin zuten 1912an. Herri-tik hartutako 499 kantu eta musikagailuentzat 24 doinu aurkeztu zituen Donostiak. 1915eko martxoaren 20an erabaki zuten epaimahai-koek (Loredo, Valle, Gortazar) Azkueri ematea lehen saria eta Aita Donostiari bigarrena. *Euskal eres-sorta* izenburupean argitaratu zen bilduma hau Madril-en 1921ean. Eten gabe jarraitu zuen kantu bilketan, Baionako *Gure Herria* aldizkarian argitaratuz.


Bildutako guztiak *Euskal eres-sorta* berri batean eman nahi izan zituen Aita Donostiak 1955ean; baina makalik zebilelarik ezin izan zuen lana burutu. Jorge Rie-zuk hartu zuen txanda eta Aita Donostiaren musika artxiboa arakatuz, 2.142 kantu taiutu zituen, 1992an hil zenean argitaratu gabe geratu zirenak. Azkenean, Aita Donostiaren loba den Maria Teresa Zulaikaren eginahiri esker, talde batek lortu zuen aspaldiko proiektua burutzea eta 1994an kaleratu ziren *Lan Osoen* VI., VII., VIII. eta IX. tomoetan.



Aita Donostia, 1930ean, Alkozko Antonio Ziaurri-zekin Almute Dantza pentagraman transkribatzen.

## Euskal preludioak

Aita Donostiari ospe handiena eman ziotenak dira pianorako konposatu zituen herri



Euskal Preludioak. Ervitik egin zuen argitalpenaren azala.

kantuen harmonizazio hauek. Hogeita bat dira guztira *Preludioak*, lau koadernotan Ervitik argitaratu zizkigunak. Denak, laugarren koadernoko *Zubero-errialde* izan ezik, 1912 eta 1916 urteen bitartean eginak dira. Bigarren argitalpena Aita Riezuk prestatu zuen *Piano* izeneko liburuan,

1972an. Schumann eta Grieg-en tankeraren antzera eginak direla diosku Aita Donostiak, «musika idazteko premiaturik sentitzen naitzenez».

Joaquin Larregla pianista nafarra izan zen 1916an *Preludioak* Madrilen ezagutzera eman zituena. Abegi ona eta arrakasta ospetsua izan zutenez, orkestrarako moldatzea eskatu zioten eta lehenengo multzo bat prestatu zuen 1917an Pérez Casasen Orkestra Filarmonikoak Madrilen interpretatu zuena. Orkestrarako beste bi sail ere moldatu zituen 1919an eta 1932an. Dena den, bihotz barneko azalpen xume gisa, nahiago zituen pianorako ia berez itzuritako partiturak, pianoa baitzen beretzat instrumenturik egokiena halako barne sentimenduak azaltzeko.

Baina ez pentsa horretan geratu zenik Aita Donostiaren urte haietako emaitza. Kantu bilketarekin jarraitu zuen eten gabe eta horretarako bazituen laguntzaileak, herriz herri misioetan edo sermolaritzan zebiltzan fraide adiskideak. Ahotsetarako ere erabili zituen bildutako kantu batzuk, hala nola Orfeoi Donostiarrari 1913an eskaini zion *Suite Vasca*, eta beste munta gutxiko konposizioen artean, 1915ean eman zigun *IX Eguberri abestiyak*, Charles Bordesen ildoari jarraituz.

Biltzen zituen kantuak (testua eta musika) aztertzen hasi zenean, euskal nortasunaren eta berezitasunaren erradiografia egiteko parada izan zuen, dantzak eta kondairak, herri literatura eta ekanduak ere ikertzeko hain zuzen. Asko dira orduko aldizkarietan idatzi zituen artikuluak, eta eman zituen hitzaldiak.



Aita Donostia pianoaren alboan. Jose Maria Uzelai pintoreak egindako oleoa.

## Hitzaldiak

Ehun eta hirurogeita hamar hitzaldi eman zituen Aita Donostiak bizitzan zehar. Euskal Preludioak argitaratu zituen urte berean, 1913an, musikagintza baztertu gabe, zekiena jendaurrean azaltzeko hitzaldien munduan sartu zen. Aipatu urtearen martxoan Aita Nemesio Otaño jesulagunak Donostian egin zituen hitzaldietan Aita Donostiak lagundu zion pianoarekin. Beroni ere hitzaldien bidez zerbait egin zezakeela iruditu zitzaion eta gaiak prestatzen eta eredu moduan erabili beharko zituen kantuak harmonizatzen hasi zen. *Berrogei kantu ahots eta pianorako* prestatuak zeuzkan hitzaldiak ematen hasi zenerako.

Lehendabizikoa Bilbon eman zuen, Filarmonika Elkartearen, 1916ko apirilaren 30ean. Gaiaren eta argitalpen eder eta txukunaren izenburua: *De música popular vasca*. Maiazaren 2an azaldu zuen bertan bigarren zatia.

Esan dezagun Bilboko Eusko Gazteriarekin orduan hasi zela harremanetan eta haien abertzaletasunaren eraginez aurrerantzean *Aita Donostia* izena erabiltzea erabaki zuela, nahiz eta lehenago ere, baina ez beti, erabili. Gazteriarentzat Jesus Guridirekin harmonizatu zituen kantuak *Udalaitz* izenordearekin sinatu zituen. Beste goitzen batzuk ere erabili zituen: A. *Zabala* eta *Andia* esate baterako.



Bilboko Filarmonika Elkartearen 1932an eman zuen hitzaldia, Uzelai pintoreak ilustratuta.



Bilbon, 1916an emandako hitzaldien azala, Cabanas Oteiza pintoreak ilustratuta.

Arrakasta handia izan zuten Bilbon emandako bi hitzaldiek eta errepikatu zituen Iruñean urte bereko uztailaren 3an eta 6an, eta Eibarren 1917ko maiatzaren 15 eta 16an. Hemen, gainera, herriko Musika Banda zuzendu zuen, entzule batzuen protestak biztuz. Gainera, ospe handiaz inguratzen hasia zen gure fraidetxoa eta komentuko nagusiek galazazi zioten hitzaldiak ematea. Bilbon eta Eibarren eman ondoren gertatu zen debekatzeko hura uztailaren 12an. Baina hurrengo urtean, Eusko Ikaskuntza antolatzen zebilen I. Batzarrerako, euskal musikaz hitzaldia egiteko baimena eman zioten. Oñatin, 1918ko irailaren 4an irakurri zuen honako hitzaldi hau: «Estudio comparativo de nuestra música popular con la de otros pueblos», argitaratu gabea.

Gai bera erabili zuen 1931n Baionako Euskal Erakustokian eman zuen hitzaldian. «La chanson basque: ses rapports avec les autres chansons populaires de l'Europe». Sarritan gertatu zitzaiona da hau, hots, hizkuntza batean aztertu eta idatzitako gaia beste hizkuntza batera itzuli beharra, hitzaldia eman behar zuen tokiaren arabera. Eta musika zenez gai nagusia, adibideak jartzerakoan pianoa erabiltzen zuen edo kantariren baten laguntza.

Lekarozko ikastetxearekin zeukan lotura bukatu zitzaion 1918ko abuztuan, Madrila ikasketak egiteko baimena eman ziotenean. Aurreko urtean meza berria emanda zegoen

Hilario Olazaran Lizarrakoak bete zuen irakasle tokia. Hamar hilabete egin zituen Madrilén Aita Donostiak. Hantxe ezagutu zuen Gregorio Marañon, bizi guztian osagile nagusia izango zuena. Baita Jorge Riezu unibertsitatera matematikak ikastera joandako kaputxinoa ere.

Gregorianoa kantatzeko korua sortu zuen Madrilén Aita Donostiak, eta beste ekintza askoren artean, *Canciones de cuna vascas* hitzaldia eman zuen 1919ko apirilean, Ritz Hotelean, Pepita Sanz soprano famatuak adibiderako kantuak kantatuz. Nemesio Otaño, Luis Iruarrizaga, Vicente Arregi eta beste euskal musikariek biltzen zen erruz. Madrila bidaiak errepikatu zituen 1922, 1923 eta 1925 urteetako lehen sei hilabeteetan.



Menchu Gal-ek egin zion giza irudiaren oleoa.

Argentinara osterera luzea egin zuen 1924an Uztaritzeko Seminarioa eraikitzeke diruaren bila. Baionako apezpikua zen Gieure jaunaren eskariz abiatu zen Bordeletik maiatzaren 30ean *Gure Herria* aldizkariaren zuzendaria zen Edmond Blazyrekin. Euskal musikaz hitzaldiak eman zituen Buenos Aires, Bahía Blanca, Córdoba, Rosario eta Montevideon.

Euskal Herriko hiriburuetan eta hiri nagusietan hitzaldi ugari eman zituen; baina kanpoko toki askotara ere deitua izan zen gure musika

eta folkloerari buruz hitz egiteko: Salamanca, Santander, Praga, Bartzelona, Pabe, Paris, Angers, Madril, Londres, Basilea, Erroma eta abar. Ehundaka hitzaldietatik aparte kontuan hartu behar da hainbat aldizkaritan euskal kulturari buruz artikulak argitaratu zituela, gehienetan ikerketen ondorioz datu berriak ematen zituela. Asko dira *Apuntes de folklore vasco* izenburupean kaleratu zituen lanak, *Lan Osoen* lehen hiru tomoetan argitaratuak. Hitzaldiak, berriz, IV. eta V. tomoetan.







Aita Donostia, eskuinetik lehena, Lauaxeta olerkaria eta Zubiri txistulariarekin 1935ean.

## **Abertzalea.** **Euskaltzain urgazlea**

Folklorearen inguruan egindako ikerketek, hitzaldiak prestatzeko etnia eta etnologian egin behar izan zituen azterketek eraman zuten Aita Donostia herriaren nortasun berezia ezagutzera eta maitatzera. Donostiako bere gurasoen etxean ez zuen euskal kulturarik ez euskararik xurgatu eta Lekaroz eta etorri behar izan zuen hodeiartzean argiren bat ikusteko.

Ebangelista Ibero, Lekarozen 1897an apaiztua, izan zen Lizarrako ikastetxearen zuzendaria zenean *Ami Vasco* 1906an argitaratu

zuen. Abertzaletasunaren ikasbidea, hain zuzen! Baina Aita Ibero erbesteratu zuten Hijarko komentura eta han hil zen 1909an, 36 urte zituenean. Gure musikoak ez zuen Aita Iberorekin hurbileko harremanik izan baina bai Aita Roman Berarekin; euskaltzale sutsua zen honekin sortu zitzaion euskal kultura eta euskararekiko grina. Baina Aita Bera eta beste bizkaitar batzuk (Sabino Aranaren bultzadari eutsi ziotenak) erbesteratuak izan ziren Ozeaniako Guam uharterdira.

Hau guztia ikusirik eta komentutik kanpo herri-tarrek euskararen aldeko eskarmentuaz

jabetuz, meza berria eman zuen urte berean euskal mundurako esnatu zen bere baitan eta Bilboko Eusko Gazteriaren mezua 1912tik hasita bereganatu zuen jendaurrean zera aitortuz: «Handia da, handiegia agian, nire aberria den Euzkadirentzat sentitzen dudan amodioa... Nire goiburua honako eder hau da: Gu, Euzkadirentzat, ta Euzkadi Jaungoikoa-rentzat».

Euskara bere kabuz ikasten ziharduen, Euskal Herrian zegoen bitartean, horretarako astia zeukanean, eta iritsi zen, Isaka Lopez Mendizabalek esaten digunez, euskara hitz jarioz meneratzera. Idaztera ere ausartu zen,

argitaratutako artikulu batzuetan ikus dezakegunez eta idazten zituen hainbat gutunetan. Lopez Mendizabali diotso 1930 inguruan: «Barkatu nere euskal-utsak... Ala ere, euskeraz egin bear degu». Itzulpen munduan ere sartu zen zerbait katalanetik euskaratuz eta «kanta zarrak biltzen nabilela –diosku– esakera zarrak eta abar bildu ditut».

Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle izendatu zuen 1932ko urtarrilaren 29an, Azkue euskaltzainburuak adierazi zion bezala. Sarrera hitzaldia Donostian irakurri zuen, 1956ko urtarrilaren 26an, euskaltzain osoen bileran. Gaia: «Euskal Herriko otoitzak».

## **Paris, musikarien helburua**

*M*endearen hasieratik hau zen euskal musikarien helburua. Madrileko eskolatik at egin eta Parisen zegoen musikagintza berrira jo zuten Usandizaga, Guridi, Azkue eta bestek, han zegoelako musikaren muin eta gunea. Frantziako hiriburura heldu zen gure Aita Donostia 1920ko urtarrilaren 20an, eta lehenbiziko ekintza Claude Debussy-ren hilobian otoitz egitea izan zen. Parisko musika giroa ezagutzeko beharrezkoa zuen musikariekin harremanetan jartzea eta irakasle ona aurkitzea. Horretarako han zeukan bost urte lehenago Bartzelonan ezagutu

zuen Ricardo Viñes pianista eta honen bidez jarri zen harremanetan honako hauekin: Maurice Ravel-ekin lehenbizi. *Schola Cantorum*-en ikasketa batzuk burutu zituen Vicent D'Indy-rekin, baina Ravelek gomentatzen dio Eugene Cools-ekin saiatu behar duela tankera berrian aurrerabideak egiten; eta hala onartzen du Aita Donostiak, maiatzean Cools maisuarekin ikasketak hasiz.



Jose Maria Uzalaik lapitzez egindako irudia  
(Originala J.A. Aranaren artxiboan dago).



Pozik dabil gure fraidea maisuarekin eta heldu berria den Norberto Almandoz gomendatzen dio irakasle berbera har dezala. Beste bi euskal musikari iristen dira Parisera, Migel Etxebeste eta Juan Telleria, eta laurak biltzen dira kontzertuetara elkarrekin joateko.

Viñes eta Ravelen bidez ezagutzen ditu Erik Satie, Francis Poulenc, Federico Mompou, Joaquin Rodrigo, Emilio Pujol eta beste. Parisko edo han dauden musikarien artean ezaguna izatera iristen da eta bere lan hautatuekin kontzertua emango du Erard Areto famatuan ekainaren 28an.

Mundu horretatik aparte ere beste ertigintzetan ari diren artistak ezagutzen ditu, hala nola Marthe Spitzer zizelkaria. Bizpahiru busto egin zizkion gainera, bat Lekarozen gordetzen dena. Antzerki munduko Henri



Jose Mª Vera kaputxinoak Bartzelonan egin zion bustoa, Donostian 1974an Santa Katalina lorategian jarria.

Ghéon ezagutzen du eta abuztuaren 14an Lekaroz itzultzen denean idazle honen testu bat darama musikatzeko: *Les trois miracles de Sainte Cécile*. Cavaille-Coll organogile famatuaren fabrika ikusteko aukera du eta orain jabea den Charles Mutin jaunarekin harremanetan hasten da Zulaika-Arregi gurasoek Lekarozko komentuari oparitu nahi dio-



Euskal musikariekin. Ezkerretik eskuinera. Goiko lerroan: Pagola, Olaizola, Sorozabal, Urteaga, Beobide, Etxebeste, Izurategi. Behekoan: Otaño, Gabiola, Donostia, Guridi, Almandoz.

tena erosteko. Handik bi urtera, 1922ko abuztuaren 20an estreinatuko da organo berri hori Luis Urteaga eta Bitor Zubizarreta organisten kontzertuarekin.

Henri Ghéon-en *Les trois miracles de Sainte Cécile* musikatuaren partitura besapean darabala Parisera doa berriz 1920ko abenduaren 9an, Eugene Cools irakaslearekin konposizioa eta orkestrazioa ikasteko. Parisko eskola honetan sinfonista trebea bihurtzen zaigu Aita Donostia, geroko musikalanek adierazten digutenez. Baina ez da musikagintza kaputxino honen ardura bakarra; ikerle eta idazle gisa, Parisko eta inguru hurbiletako liburutegi eta artxiboetan euskal kulturari dagozkion dokumentuak bilatzen eta sarritan aurkitzen ari da.



Aita Donostia Lekarozko organo berria jotzen.

## ***Fraide ibiltaria***

Parisen ikasketak egiteko 1920-1921eko egotaldi luzeak burutu ondoren, han-hemenka aurkitzen dugu Aita Donostia, ikerketak egiten, kontzertuak edo hitzaldiak ematen, argitalpenak prestatzen, musika konposatzen, musika eta folkloreaki buruzko biltzarretara joaten, eta abar. Geldi egon ezina agertzen zaigu gure fraidea, ekintzetarako deitua delako, nagusiek bidaltzen dutelako edo berari interesgarria iruditzen zaiolako.

Argentina eta Uruguaitik 1924an ibili zela esan dugu. Handik itzuli zenean Madrilen

eman zituen egun batzuk Marañon medikuak analisiak egin ziezazkion. Lekaroz etorri eta berriz Madrilera joan zen martxoaren 4an hiru hilabete eta erdirako Gregoriano eta Liturgia ikastaroa ematera. *Eliz abesti sorta* liburua argitaratzen du 1925ean. Hurrengo urtean Juan Carlos Gortazar hil zenean, Musika sailburu izendatzen dute Aita Donostia Eusko Ikaskuntzan. Parisera doa bi aldiz, batean Solesmesera joateko Dom Mocquereau gregorianistarekin jarduteko eta bigarreanean, urriko 19tik abenduko 3ra,

Asisko San Frantziskori, beronen mendeurrenean, eskaini zion poema sinfonikoa estreinatzerara.


San Frantzisko izango da aitzakia hitzaldi ugari emateko 1927an eta 1928an: Iruñean, Donostian, Madrilen, Salamancan, Bilbon, Santanderren eta abar. Azken urte honetako azaroan Gasteizen antolatu zen *IV. Eliz Musikaren Biltzarra* eta Aita Donostiak hitzaldi bikaina eman zuen erlijiozko herri kantei buruz. Hainbat zereginen artean astia hartu zuen alemana ikasteko ere, ikusten baitzuen hizkuntza honetan musikari buruzko bibliografia ugaria argitaratuta zegoela.

## Munta handiko lanak

Parisen egin zituen ikasketek eta puntarengo musikariek eman zizkioten aholku eta gomendioak jarraituz, beste musika mota bat egiten hasi zen Aita Donostia. Orkestraren erabile-  
ran sinfonista fina bihurtu zitzaigun. Egia esan, espirituz aberatsa eta fina zen gure fraideari hobeto zetorkion ikasitako tankera berria.

*Les trois miracles de Sainte Cécile* Parisen, 1921ean, estreinatu eta 1925ean hasi zen *La vie profonde de St. François d'Assise* musikatzen. Amaitu bezain azkar Parisera joan zen estreinatzerara. Champs Elisées-en eman zen lehen-dabizi 1926ko azaroaren 1ean.

Asisko San Frantziskori zuzendutako lanaren originala.



Ondoren, *Le Noël de Greccio* ematen dio Henri Ghéon idazleak musika dezan. 1936ko azaroaren 9an estreinatu zen Parisen. Antzerkigile horren laugarren lan bat musikatu zuen 1938an: *La Quête Héroïque du Graal*, Martenot uhinak eta pianoa erabiliz orkestrazioan. Henri Ghéonen libretoekin musikatu zituen lau partitura mardulek ematen digute Aita Donostiaren sinfoniarako trebetasuna. Baina ez ziren hauek bakarrik izan sinfonismoaren adibideak; nahiz eta sinfoniarik ez egin, musika mota honek eskatzen duen estrukturarekin erakutsi zigun sinfoniak egiteko beste meneratzen zuela orkestra.

Donostiako Saski-Naski taldearentzat konposatu zuen 1930ean *Los ferrones de Mirandaola* orkestra handirako, eta 1932an *Acuarelas Vascas*, Bilboko Filarmonika Elkartearen estreinatu zena. Frantziako Tolosan, erbesteratua zegoen garaian, konposatu zuen *Poema de la Pasión*, ahots eta korno ingelesarentzat partitura luzea. Lekarozen irakasle izan zuen Ismael Etxezarrari eskaini zion.

Ordurako, eta erbesteratua izan baino lehen, musika guneetan, eta bereziki Parisen, ezagutua zen gure Aita Donostia eta nolabait fama-tua ere. Argitaratzaileek ez zioten oztoporik jartzen partiturak kaleratzeko. Parisko Max Eschig editoreak argitaratu zion 1927an bi urte lehenago konposatu zuen *Errimina*, eta 1930ean *Prière plaintive á Notre dame de Socorri* eta *Manuet Basque*.

## Erbestean

Aita Donostiak idatzitako Egunarian ematen dizkigu pairatu zuen erbestearen zehetasunak. Lau tokitan kokatu behar izan zuen bizigunea: Tolosan (Toulouse), 1936-1939; Parisen, 1939-1940; Mont-de-Marsan-en, 1940-1941; Baionan, 1941-1943.

Espainiako gerra hasi ondoren, azaroaren 3an doa erbesterera, Dantxarineako mugatik Okzitaniako Tolosa aldera. Hiru urte beteko ditu hiri honetan noizbait Parisera, Bordelera eta Baionara osterak antolatuz. Konposaketari



Pedro M<sup>a</sup> Iruzunek 1944an egindako argazkia.



ekiten dio eta hitzaldiak prestatzeari. *Pasionea Poema*, lehen esan bezala, hemen burutu zuen. Baita «La chanson basque et son harmonisation», «A propos du cantique 'O Jesus gurutzera'» eta «Quelques observations sur la manière de recueillir des chansons populaires» hitzaldiak ere. Azken hau irakurtzeko Parisera joan zen 1937ko abuztuaren 19an, II. Nazioarteko Folklore Biltzarrean parte hartuz.

Irailaren 15erako Tolosako komentuan zegoen berriz, konposaketa lanari jarraitzeko. Espainiako gerratea bukatu zenean, hainbat

errefuxiatu zetorren Frantziako babesaren bila, eta haiei laguntza ematen saiatu zen Tolosan azaroaren azkenerarte.

Parisko zazpi hilabeteko egotaldia hasiko du azaroaren 26an. Trocaderon dagoen Folklorearen Museora doa, Kontserbatorioko Bibliotekara ere: folklore eta musikari buruzko datu berrien bila dabil beti. 1940ko urtarriaren 25ean hitzaldi bat ematen du Trocaderoko Museoa: «Laneko kantuak Euskal Herrian». Berehala hasten da beste gai bat jorratzen, hots, Polifoniaren Historia. Bere lanekin ere han-hemenka kontzertuak em-



Eresoinka taldearekin Parisen, 1937an.

ten ditu. Ekainaren hasieran Tolosara abiatzen da, baina komentua errefuxiatuekin beterik omen zen eta, Probintzi buruaren gomendioz Mont-de-Marsan-eko komentura joan zen.

Bere herritik gero eta hurbilago zegoen Aita Donostia Landetako hiriburu honetan. Eta egia esan, hango komentuan baino denbora gehiago eman zuen Baiona, Donibane, Azkain eta Lapurdiko beste herrietara egin zituen osteretan. Parisera joan-etorri azkarrak eginda, Baionara aldatu zuen egoitza 1941eko maiatzaren 14an. Data hau darama ahotsetako egin zuen *O Jesu mi dulcissime* motete ederrak. Landetako garaian musikatutako lanak ditugu *Enfantines* pianorako eta

*Diez canciones sefardies*. Organorako egin zuen *Itinerarium mysticum* (1937-1943) bildumaren bigarren zatia *In festo Dolorum B. M. Virginis* Mont-de-Marsan herrian egina da.

La bi urte bete zituen Baionan. Biarritzeko Saint-Charles parrokian organista izan zen eta Gelasio Aranbururekin Sine Nomine Korala sortu zuen. Laugarren egotaldi honetan ama Felipa Arregi hil zitzaion Donostian 1942ko San Jose egunean. Aita Donostiak ez zuen ama bizirik ikusteko baimenik lortu. Baina hil ondoan utzi zioten mugaz honantz etortzen hilabeterako. Azkenik, 1943ko apirilaren 1ean heldu zen Lekaroza.



*Enfantines* partitura argitaratuaren azala.

## **Bartzelonako musicología institutuan**

**L**ekaroza heldu zenean hutsik aurkitu zuen komentuko gela eta liburuak eta artxiboko dokumentu guztiak sakabanatuta. Dena biltzeari eta taiutzeari ekin zion, erbestetik ekarritako guztia ere eman zioten gelan antolatuz. Egun haietan, apirilaren 5ean, hain zuzen, atera zen moldiztegitik Buenos Airesen *De música vasca* liburua, Ekin argitaratzaileak kaleratuta. Aita Donostiak 1921ean Gasteizen eman zuen «Cómo canta el vasco» hitzaldia eta Aita Frantzisko Madinaren «La música vasca» argitaratu ziren liburu hartan. Gerra osteko lehen argitalpena zen, baina musikari eta musikologoaren arte-

an oso ezagunak ziren beste aurreko lanak ere.

Higinio Anglesek deituta Bartzelonara doa 1944ko otsailaren 7an, Instituto Nacional de Musicología delakora, han egin zezakeen ikerketa ikus-terera. Otsailaren 15ean Iruñean dago. Hortik Salamancara abiatzen da San Frantzisko Asiskoari buruz hitzaldia ematera Unibertsitatean. Madrilen dugu martxoaren 2an. Donostian, martxoaren 20rako, Erviti argitaratzailearekin *Enfantes*-en gaztelaniazko argitalpena prestatzen.



Agina mendian, Jorge Oteizak egin zion omenezko harria, 195gan.

Maiatzaren 1erako Bartzelonan da aipatu Institutuan lanean hasteko prest. Bederatzi urte beteko ditu. Heldu zenean H. Angles eta Marius Schneider musikologoak agurtu zituen eta lehenaren gomendioz Gregorio M<sup>a</sup> Suñol beneditarrarekin paleografiaz ikastaroa burutu zuen. Lankideak izan zituen gero Baldelló, Querol eta abar. Folklore eta etnografiari buruzko datuak biltzea bere ardura-pean jarri zuten eta 6.000 fitxatik gora bete zituen, beste ikerketa lan batzuk ere baztertu gabe. Hasita zekarren lan bat ere bukatu zuen 1945ean: *Missa pro defunctis*, lau ahots eta organorako egina. Catalunyako herri kantak harmonizatu eta olerkari katalanen poemak ere musikatu zituen.

## Argitalpenak

Urteen buruan bildutako datuekin musikologiako ikerketak eta liburuak mamitzeko beste material zeukan Aita Donostiak pape-retan. Datarik gabe eta Eusko Ikaskuntzaren babespean kaleratu zuen gerra aurrean *Gipuzkoako Dantzak*, Juan Inazio Iztuetaren liburua eguneratuta. Bartzelonan zegoela, eta Euskal Herriko Adiskideen Elkartearen monografiaren sailean argitaratu zuen 1951n *Música y Músicos del País Vasco* eta 1952an liburuki bakar batean *Historia de las Danzas de Guipuzcoa* eta *Instrumentos musicales del País Vasco*. *Música de tecla en el País Vasco en el siglo XVIII* liburuan eman zizkigun mende horretako musikoen biografiak eta







lanak 1953an. Jadanik Bartzelonatik itzulita zegoen.

Bizirik zegoela argitaratu zituen Aita Donostiak lan literario asko (hitzaldiak, ikerketa lanak, artikulak) eta musikalak ere bai. Baina sakabanaturik zeuden, asko agortuak edo aurkitu ezinak. Idazlanak eta bildutako kantuen bilduma berrargitaratuak izan dira bederatz



tomotan (1983-1994) Jorge Riezuren zuzendaritzapean, La Gran Enciclopedia Vasca eta Eusko Ikaskuntzak babestuta. Aita Riezu bera hasi zen 1960an konposatutako musika argitaratzen, hamabi tomo marduletan: *Ahozko Eliz Musika* izenburupean, bost tomo; *Ahozko Musika Profanoa* izenez, lau tomo; *Musika instrumental*a deituraz, hiru tomo.

## ***In paradisum***

Bartzelonatik Lekarozka itzuli zenean 1953ko uztailaren 1ean, hemengo musikariekini hasi zen harremanetan. Hurbil zeukan Juan Eraso, Elizondoko Korralaren zuzendariarekin lanean ziharduen eta Tolosan zegoen Jabier Bello Portu, Felipe Gorriti Eskolaniaren zuzendariarekin. Honek estreinatu zion *Missa pro defunctis* abenduaren 16an.

Baina 1954tik 1956ko ekainerarte makalik sentitzen zen eta hainbat bisita egin zizkion

adiskide zuen Marañon medikuari. Urte horretako ekainaren 8an eman zuen azken meza Lekarozen. Abuztuaren 30ean hil zitzai-gun Jose Antonio Donostia Lekarozko komentuan. Irailaren 1eko hiletetan, berak eskatuta, gregorianozko meza kantatu zioten. Irailaren 5ean, Aita Donostiaren *Missa pro defunctis* kantatu zuen Elizondoko korralak, azken agurra emanaz euskal musikak duen gizaseme garrantzitsuenari, aingeruek paradisura eramán zuten Aita Donostiari.



*Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:*

- *Eresbil Errenteria.*
- *J.A.Aranaren artxiboa.*

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 2001eko azaroa

Ale-kopurua: 2.325

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Joseba Olalde

Fotokonposizioa: E.P.S., S.L.  
Beato Tomás de Zumárraga, 66 - 01009 Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.  
Bekolarra, 4 - 01010 Vitoria-Gasteiz

ISBN: 84-457-1712-X  
84-457-1716-2

L.G.: VI-505/01

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**DEPARTAMENTO DE CULTURA**  
Viceconsejería de Política Lingüística